

# Aretxagazeta

Internet: [www.saretxo.es/aretxagazeta](http://www.saretxo.es/aretxagazeta)  
e-mail: [aretxagazeta@saretxo.es](mailto:aretxagazeta@saretxo.es)

Aretxabaleta • 1998ko irailak 3 • 150. zka.



## andramai xak



Euskaltegiak egoitza berria

Iturririk iturri: Maria Josefa Garcia-Etxabe

Iritzia: Ines M. Garzia





- Janari prestatuak
- Artisau produktuak
- Bakailoa
- Hanburgesak
- Pizzak
- Bokatak

TALDEENTZAT  
BAKAILOA,  
OILASKOA EDO ETA  
BESTE EDOZEIN JAKI  
PRESTATZEN DA



Mitarte 10 • Tfnoa: 943 77 06 12 • Fax: 943 77 15 82 • 20550 ARETXABAETA • GIPUZKOA

# Oraingoan bai!

## IRAILA EUSKARAZ DATOR!



### ESKAINTZA

EUSKALDUNTZE, ALFABETATZE maila guztiak, EGA eta GURASO eta MERKATARlei egokitutako taldeak.

### ERRITMOAK

Eskarien arabera, erritmo desberdinak eskain daitezke. Galde ezazu!  
Bekatzte-sistema eta diru laguntzak ditugu.

### BULEGO ORDUTEGIA

Goizez: 09:00-13:00.  
Arratsaldez: 15:00-19:00.

### MATRIKULATZEKO EPEA

Irailaren 1etik 18ra arte.  
16 urtetik gorakoentzat.

## LEINTZ UDAL EUSKALTEGIA

**ARETXABAETA:** Nafarroa etorbidea, 24 • Tel.: 943 79 21 68  
**ESKORITAZA:** Fernando Enparantza • Tel.: 943 79 21 68





# Arantzazura peregrinazioa egiten duzu?

**Eugenio Lacalle**

(Jubilatua)

Bai, bi aldiz joan naiz. Basotxotik joan izan naiz eta oso ondo pasatzen dugu. Aurten ez naiz joango nire urtebetetzea egun horretan da eta.



**Nekane Osa**

(Ikaslea)

Ez naiz sekula egon eta ez dut joaten denik ezagutzen. Gustatuko litzaidake noizbait joatea.



**Miren Revuelta**

(Langilea)

Ez, ez naiz joan. Egia esan ez dit larregi erakartzen.



**Jose Antonio Usabiaga**

(Langilea)

Ez. Ez naiz katoliko praktikantea eta ez naiz sekula peregrinazioan egon.



e s k u t i t z a



## Guk badakigu bidea

Zazpi urte dira Lausitako etxe berrietan bizi naizela, eta denbora honetan guztian ez dut uste aste bat igaro denik kamioi handiak etxe aurrealdean buelta ematen ikusi barik. Gaur goizean bertan bi izan dira buelta eman behar izan duten kamioiak.

Garbi dago galduta etortzen direla. Hemendik nora joango dira, bada? Untzilara? Ez dut uste. Ez dakit zehazki nora doazen baina batzuek dakartzaten gai motarengatik badirudi industrialdera joateko asmoarekin etortzen direla. Eta nondik joan daiteke industrialdera? Nik badakit, baina ez daukat kamioirik eramateko beharrik, eta gainera ni joaten naizen bidetik ezin dira kamioiak pasatu.

Beraz, non jartzen du edo non jarri beharko luke zein den kamioiek jarraitu beharreko bidea? Nori tokatzen zaio hori argitzea? Ez da denbora luzea bideetako seinaleak berritu zituztela, baina agindua

eman zutenek ere bidea ondo ezagutzen omen zuten.

Berba asko egiten da industrialdearen garapenari buruz, baina batzutan begiak lantegitik ateratzea ere komeni da. Ea arazoa konpontzen den eta txofer berri bati herrira etortzea tokatzen zaion bakoitzean ez den mariatzen.

I. G.  
15351799



Gipuzkoako Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria



Kultura sailak diruz lagundutako aldizkaria



Aretxabaletako Udalak diruz lagundutako aldizkaria

Aretxagazeta aldizkaria. **Argitaratzailea:** Aretxabaletako komunikabideak-Loramendi elkarte. Kultur etxea, 151 postakutxatila Aretxabaleta. Tfnoa: 943-79 01 05. **Erredakzio-kontseilua:** Irune Iturbe, Mirari Altube, Alberto Izagirre, Gurutze Larrinaga, Koldo Zubizarreta, Aitor Irure, Gotzone Arrese, Gorka Etxabe. **Erredakzio arduraduna eta publizitate arduraduna:** Iratxe Bengoa eta Amaia Gastañaga. **Kolaboratzaileak:** Mikel Arroiabe, M.J. Aretxaga, Andoni Arana, Amaia Berezibar, Joseba Lopez de Armentia, Josu Urkia, Inma Miguel, Aitor Antxia, Iñaki Urreta, Loramendi E. E., Udala, Euskaltegia. **Banatzaila:** Itxaso Barbero. **Inprimategia:** Eguzkigraf. **Tirada:** 2.500 ale. Aretxagazeta paper birziklatuan egiten da. **Lege gordailua:** SS378 / 94. **ISSN:** 1134-2609. **Internet:** www.saretxo.es/aretxagazeta **e-mail:** aretxagazeta@saretxo.es. Aretxagazeta aldizkaria ez da kargu egiten aldizkarian adierazitako esanekin eta iritziekin.

**Aretxagazeta**





Pasa den urteko Andramaixak Arientzan

## Agorreko Andramaixak Arientzan

Ekintzaz beteriko asteburua antolatu da Arientzan datorren 11, 12 eta 13rako.

Jaiak eguakotxean hasiko dira, arratsaldeko 6etan tantai bila joateko Etxabarrin elkartuz.

Errepikak eta etxafleroak jaurti ondoren, auzokideen artean Martin Kabarrixa zintzilikatuko da, era berean, bere kantua gogoratuz eta tantaia jasoaz. Jarraian auzo afaria egongo da eta afalostean Iñigoren dantzaldiak giroa alaituko du.

Zapatuan ere egongo da zer

egin, 14. Ginkanan, XIII. Arosartze txapelketan eta X. txerri harrapaketan parte hartu, mailuaz untzak sartu...eta honelako beste hamaika ekintza.

Gauean, berriz, ere Iñigok eskeinitako dantzaldia egongo da. Dantzan ibili ondoren, ordu 2etan aurreko egunean jasotako tantaia botako da.

Agorreko Andramari jai hauei amaiera emateko, domekan, Kur-tzeberri eguna ospatzeko, bertara hurbilduko dira. Ondo pasa!

## Trafiko seinaleak apurtuta

Pasa diren Andra Mari Jaietan makina bat seinale apurtuta azaldu ziren herrian. Horietatik lau Mitarte kalean zeuden, bostgarrena, berriz, Durana kalean. Abuztuaren 17ko sokamuturrean aritutako zezen batek hautsi zuen azken hau.

Seinale gehienak agertu diren arren, desagertuta dagoen baten kasua ere badela jakinarazi da. Norabideak errazten dituzten seinale hauen beharra dela eta, dagoeneko hasi dira beraien ohiko egoeran jartzen.

## Iturri gorri frontoia amaituta

Andramaixetarako Iturri gorri frontoia amaitzea helburutzat zuen Udalak. Horregatik, azken ahaleginak egin ondoren, abuztuaren 13rako guztiz bukatu zituzten bertako obrak.

Berrikuntza laneko azken fase honetan, paretak margotu zituzten, baita graden gainean estalkia jarri ere. Honek, zikin-keriak, eguzkia, euria... sartzea, eta pelotak irtetea ere ekidituko du.

## ERREKABARREN MEREKATAL ZENTRUA

- JUANTXO URDAITEGIA 943 79 75 42
- MARI KARMEN OINETAKO DENDA 943 79 59 85
- IRUDI ILEAPAINDEGIA 943 79 80 90
- MIREIA ARRAINDEGIA 943 79 31 59
- ARAMAIO OKINDEGIA 943 79 64 87
- LEINTZ-ROSI 943 79 78 63
- ERREKABARREN FRUITATEGIA 943 79 96 43

## MIREN

*Chunak eta beritasunak*

*salneurri bereziak*

Murubide, 1 ♦ 943 79 67 97

Frutan eta txarkuterian  
espezialitatea

## Angelines

AUTOZERBITZUA

Mitarte, 16 • 943 79 61 42



ERAIKUNTZA ETA INDUSKETAK

Tfnoa: 943 79 01 51

Basabe Poligonoa, 4 EQ-11 • ARETXABALETA

Zuzendaria:  
*Lyonel Arquero*

Dekorazioa:  
*Soraya Arquero*



## Londresera bidaiak arrakastatsua



37 lagun joan ziren bidaiak honetara

Primeran pasa zuten Londresera joandako 37 lagunek. Parrokiak antolatutako bidai honetan, Londres ikusteaz gain, Paris, Bruselas, Eurodisney eta beste hainbat leku ikusteko aukera ere izan zuten.

Egun osoa hara eta hona ibili zirenez, eguna neka-neka eginda bukatu arren, bikain pasa dutela

jakinarazi digute. Egia esan, eguraldi ona izateaz gain, beraien artean sortutako giroa ere oso polita izan zen eta.

Bertako hizkuntzekin ez dakigu nola moldatu ziren, baina diru aldaketa dela eta ez dela, batek baino gehiagok sustotxoren bat hartu zuen!

## Arantzazura peregrinazioan herritar ugari

Urtero moduan irailaren lehenengo astelehenean, hilaren 7an, Aretxabaletatik Arantzazurako peregrinazioa egingo da. Basotxotik hiru autobus irtengo dira eta parrokiatik ere beste bat gutxienez antolatu da. Hauetaz gain oinez joatera animatuko denik ere izango da, urtero taldetxo bat joaten baita.

Basotxo jubilatuen elkarteak egun honek izaten duen arrakasta azpimarratu nahi izan du: "Iaz ere hiru autobus bete ziren eta aurten ere horrela izango da". Basotxotik doazenek goizeko 9,30etan irtengo dute Arantzazurantz. 11etako penitentziaren ondoren, meza nagusia izango da eguerdiko 12etan eta ondoren bazkari ederra hospederian. Arratsaldean, berriz, Oñatin egingo dute geldialditxo. Ez da plan txarra! Egun ona pasa guztiok.

## Izurietako eliza obretan

Izurietako auzoko San Pedro elizan obretan hasiko dira hile honetan. Teilatua konpontzeaz gain eliza margotu egingo da kanpotik eta barrutik. Obraren aurrekontua 4 milioi eta erdikoa da eta hau ordaintzeko ondorengo finantziarioak aurrikusten da: Gipuzkoako Gotzaingoak % 40a, auzoak % 30a, Udalak % 10a eta gainontzekoa ordaintzeko mailegu bat eskatuko da. Lanok urria erdialderako bukatuta egotea espero da. Datorren urtean Larrinu, Gellao eta Aretxabaletako parrokiak egingo dira eraberritze lanak Jose Olabek jakinarazi duenez.



Teilatua berriztuko da Izurietako San Pedro elizan

**Aretxabaletako komunikabideak-Loramendi** elkarteak bi langile kontratatu behar ditu.

### **Aretxagazetarako EGUN OSOKO LANGILEA.**

Baloratuko da: Euskara maila, informatika erabiltze-mailan ezagutzea, Aretxabaleta eta bertako hizkuntza ezagutzea.

### **TELEBISTAN EGUN ERDIZ ARITZEKO TEKNIKARIA.**

Baloratuko da: Irudi eta soinu teknikan ikasketak edo esperientzia eta euskara maila.

Curriculumak irailaren 10a baino lehen Aretxagazetara ekarri (kultur etxea) edo 151 postakutxatilara bidali.



## Erreala eta Eibar parekatuta



Banakako emaitza izan zuen partiduak

B mailako Errealak eta Eibar-ek partidu amistosoak jokatu zuten pasa den abuztuaren 18an Ibarra futbol zelaian.

Aukera eta sorpresa gutxi egon zen partiduan zehar, eta azkenean 1-1 emaitzarekin amaitu zen.

Errealeko gola Barkero atxabatarrak sartu zuen, Eibarrekoa,

berriz, Garitanok.

Hasiera batean, Andoni Zubizarretari omenaldia egiteko antolatuta zen futbol partidu hau, baina oraingoan, Zubizarretaren presentzia ez izan arren, antolatutakoarekin aurrera jarraitzea erabaki zen.

Guztira 400 pertsona inguru gerturatu zen bertara.

## Hogei makina kiroletxerako

Dagoeneko ari dira kiroletxeko berrikuntzetan azken ikutuak egiten: paretan ispilua eta espalderak jarri, rokodromoa kendu... beste batzuen artean. Honetaz aparte, gimnasiorako hogei makina berri ere ekarriko dira.

Aldaketa hauek direla eta oraindik ez da erabaki zehatzik hartu, baina baliteke gimnasioan begirale bat lanean hastea eta horretarako baita prezioa igotzea ere. Baina azken

hau, oraindik erabakitzeko dago.

### Ikastaroak

Iraila hasi berri dela eta, urtean zehar kirola egiteko eskaintza ugaria dago kiroletxean. Berrikuntza bezala aerobika komentatu behar, aurrerantzean kiroletxean izango da eta. Bestalde, karate, igeriketa, mantentze gimnasia, 3. adinekoentzat gimnasia, atzegiko gimnasia eta aquagym-a ere eskeiniko dira.

## Joseba Larrinaga, Munduko txapelketan bigarren

Abuztuaren 18an, Birmingham-en ospatutako helbarritu mailako munduko txapelketan hartu zuen parte Joseba Larrinagak. Bertan 5.000 metroko lasterketan eta maratoian lehiatu zen.

Bost kilometroko frogan bostgarren postua eskuratu zuen, maratoian, berriz, bigarrena bi ordu eta berrogei minutuko denborarekin. Froga honetako azken kilometroak gogorrik iruditu bazitzaizkion ere, oso pozik ageri zen Joseba egindako lanarekin.

## Julen Larrinaga Arraun Lagunak-era

Joseba eta Julen Larrinaga anaia biek kirola praktikatzen dute baina bigarren hau ez da korrikalaria.

Itsasotik kilometro batzuetara egon arren, Julen Larrinaga arraunean aritzen da. Orain urte batzuk arrauna gustoko zuela ikusirik, kirol hau praktikatzen hasi zen 28 urteko atxabaltarra. Azken bi urtetan Bermeoko taldeaz aritu da baina aurrerantzean Arraun Lagunak talde donostiarrean jarraituko du gutxienez beste urtebetean. Momentu honetan lesio txiki batetik errekerperatzen ari da baina laster ekingo dio berriro entrenatzeari.

### OSKAR GARAJEA

Basabe Poligonoa, A-2-4  
Tfnoa: 943 79 98 74  
ARETXABALETA

### ORTOPEDIA ORTO LAGUN

Ondo ibili nahi duzu? Zuri laguntzeko gaude!

- Lanerako eskalapoikak.
- Bizkarra zaintzeko faja bereziak.
- Hanketako plantilla bereziak.

Kontzezino 2 • ARRASATE • Tfnoa: 943 79 89 34

### BITXITEGIA

### MIREN & ZURIÑE BITXIEN DISEINUA

BITXIEN-KONPONKETA  
Otalora kalea  
Eliza aurrealdean  
Tfnoa: 943 77 13 57



# Udal euskaltegiak egoitza berria

**Euskaltegia Nafarroa kalera aldatu da obrak egin eta lokala horretarako egokitu ondoren. Iaz antzera aurten ere 13 bat talde osatuko dira.**

Aurten bere 13. urtea beteko duen Udal euskaltegiak leku berrian ekingo dio ikasturteari, Nafarroa kaleko 2. zenbakian (garai batean Loramendi ikastola izan zena). Egoitza berria ez da hain ezezaguna euskaltegikoentzat, izan ere, Durana kalean egin dituen zortzi urteen aurretik leku horretan eman baitzituen hasierako urratsak euskaltegiak.

Aldaketa honen oinarria Loramendi elkarteari Pagaldaixeneko lokalean egoteko zuen kontratua bukatu ostean etorri zen. Koldo Azkoitia Udaleko zinegotziaren adierazpenetan, Udala lokal baten bila hasi zen herriaren erdialdean eta telebista proiektua ere hor egonik erabakia ondorengo izan zen: Loramendi, Aretxagazeta eta telebista udaletxe zaharreko edifizioan batu eta Euskaltegia Nafarroa kalera aldatu.

Aldaketaren eraginez Nafarroa kaleko edifizioan zeuden talde gehienak Murubidera aldatu dira, bertan gelditu direnak Zاراia M. T. eta Saretxo izan dira momentuz behintzat.



*Garai bateko Loramendiko ikastoletan (Nafarroa kalea, 2) kokatuko da aurrerantzean euskaltegia. Argazkian euskaltegiko sarrera*

## Lokala berriztuta


Udalak goitik behera eraberritu behar izan du garai batean Loramendiko ikastola izan zena. Bertan bost gela, irakasle gela eta bi komun egin dira. Egoitza berrian lehen baino gela bat gutxiago du euskaltegiak eta gelek metrotan ere zertxobait galdu dute. Bideogela ere falta zaio oraingoari,

irakasleek esan bezalaxe.

Lokala guztiz berria izan arren, euskaltegikoek ez dute oingoaren inbidiarik. Zortzi urtean ohituta zeuden beste edifizioan eta gainera "hura herriaren erdi-erdian egotean leku aproposenean zegoen, ikasleentzako batez ere", gehitzen dute bertako langileek. "Dena dela, Udalaren erabakia izan da eta ez gurea".

## Zazpian klaseak hasi

Euskaltegiko bi taldek irailaren 7an ekingo diote ikasturteari edifizio berrian. Gainontzeko taldeak beranduago hasiko dira eta iaz antzera aurten ere 13 bat talde egongo direla uste du Karnele Agirregabiria zuzendariak. "Gehienak euskara ikastera etortzen dira, baita gutxiago batzuk EGA ateratzera ere". Iaz esaterako EGA ateratzeko talde bat sortu zen. Honez gain euskaltegitik kanpora ere, ematen dituzte klaseak euskaltegiko irakasleek. Iaz Ederlanen eta Fagor Sistemasek hiru talde izan zituzten, aurten ere seguru-eruenik sortuko direnak.



*Oraindik ikasturtea hasi ez bada ere, laster berreskuratuko dute euskaltegiko gela berriek bizia*





## Akabo oporrak!

“Hustutasun hori tristura bihurtzen da kalera irten eta denda, tailer, bulego eta zerbitzu gehienak oporreatatik itxita daudela ikusterakoan”

**B**ai, gehienontzat behintzat bukatu dira oporrak. Hainbeste denbora prestatzen eta konturatu orduko berriro sartu behar eguneroko ohikerian!

Badaude batzuk gabonak pasatu orduko oporrak prestatzen edo leku exotikoenak bisitatzeko plana egiten hasten direnak, beste batzuek, ordea, aurreko astean oraindik ez dakite zer egingo duten edo nora joango diren.

Baina badago jendea bertan gertzen dena, batzuek ez dutelako beste erremediorik, urtean zehar ikasle edota langabetu izan diren beste batzuek udako hil horiek aprobetxatu behar dituztelako lan apur bat egin eta sos batzuk ateratzeko, eta azkenak, sinesgaitza badirudi ere, herrian gustura daudenak. Eta zergatik ez? Oporrak horretarako dira, bakoitzak nahi duena egiteko eta nahi duen bezala pasatzeko, nahiz eta batzuetan nahia eta ahala ez etorri bat.

Azken finean oporrek ematen diguten aukerarik onena ez da bakarrik kanpora joatearena, baizik eta, lanagatik edo lan ezagatik, eguneroko arazo, zeregin aspergarri, estresante edo itogarrietatik ihes egiteko eskaintzen diguten bidearena.

Eta hori da garrantzitsuena, gauza ezberdinak eta ohikoak egiteko ematen diguten parada, bide batez gure buruarentzako osasun apur bat ekartzen dutelarik.

Dena dela, azken urte hauetan gauzak aldatzen baldin badoaz ere, ohituta gaude oporrak abuztuan hartzen eta, ondorioz, herria hutsik geratzen da. Hustutasun hori tristura bihurtzen da kalera irten eta denda, tailer, bulego eta zerbitzu gehienak oporreatatik itxita daudela ikusterakoan. Horrek oporretan egin dezakegun gauza asko egitea eragozten dizu eta azkenean, geratzen zaizun aukera bakarra herritik ihes egitea da.

Herria eta abuztuan herrian geratzen diren herritarrek oporretako zabarkeria jasaten duten bitartean, gehienok kanpoan igarotzen ditugu oporrak, eta gainera, batek esaten zuen bezala, bideoa izanez gero kamararekin zuri-beltzean ikusitako oporrak, etxera bueltatzerakoan koloretan ikusita dituzu. Eta kontatzeko orduan ere sarritan horrela izaten da, igarotako oporrak oso koloretu ikusten dira.

INES M. GARZIA AZKOAGA

**ANDRA MARI**  
Aholkularitza

- Fiskala
- Kontablea
- Juridiko/laborala

Andra Mari Auzunea, 3  
☎ 943 79 29 26

**LEIBAR**  
arraindegia

Mitarte Kalea, 1 - Tfnoa: 943 77 13 79  
ARETXABALETA

**MEMESA S.L.**  
*Industriaren alde*

Santa Kurtz, 25-27  
Tfnoa: 943 77 11 75  
ARETXABALETA



# Maria Josefa Garcia-Etxabe

## Oinez Arantzazura

Urteak dira Maria Josefa Garcia-Etxabek iraileko lehenengo astelehenean Arantzazura peregrinazioa oinez egiten duela.

Goizean goiz abiatuko dira hamabost bat laguneko koadrila Urkulutik gora, Urrexola, Araotz eta Jaturabe pasatu ondoren Arantzazura heltzeko. Horretarako sasoa, ilusioa eta gogoia ez du falta Maria Josefak.

- Maria Josefa, noiztik joaten zara oinez Arantzazura peregrinaziora?

- Uff... aspalditik. Gaztetan artean kotxe gutxi zeudenean aita-amekin joaten nintzen. Orduan mundu guztia joaten zen oinez. Geroztik beti oinez egin izan dut joan-etorria, autobusean joan naizen urterik ez dut gogoan. Iaz buelta autobusean egin behar izan genuen euri zaparrada galanta zelako.

- Kontaizkiguzu egun horretako nondik-norakoak?

- Goizean goiz 7etan Urkulutik gora irteten dugu hamabost bat laguneko koadrilak. Urrexolara heltzeko aldatza oso gogorra egiten da. Gero Araotz eta Jaturabe pasatu eta handik gora Arantzazura. Autobusekin batera heldu izan gara. Eguerdian meza entzun ondoren, bazkaria izaten dugu guztiok Zelai Zabalen. Atxabaltar



**“Ez dut autobusean joan naizen urterik gogoratzen”**

ugari elkartzen gara bertan bazkari ederra dastatzeko. Arratsaldean 5ak aldera bueltako biderei ekiten diogu. Lehen dirurik ez zegoenean etxetik eramaten genuen jatekoa baina orain denok tabernara joaten gara.

- Forman egotea eskatuko du, ezta?

- Bai, apur bat forman egotea

eskatzen du bai. Niri ibiltzea eta pasiatzea asko gustatzen zait eta ez naiz gainera geldi egoten naizen horietakoa. Arkarazo aldetik egunero egiten dut pasioa eta kalera ere oinez jeisten naiz. Autobusez ibiltzea baino nahiago dut oinez ibiltzea eta horregatik Arrasatera ere oinez joaten naiz gehienetan.

- Noizbait esan diozu zeure buruari aurtengoa azkena?

- Iaz katarro demasaz joan nintzen eta txarto pasatu nuenez azkenengo aldia izango zela esan nuen. Aurten osteria ilusio eta gogo handiz nago joateko. Ahal dudan artean behintzat oinez joango naiz. Orokorrean oso giro ona egoten da bai bidean, gero bazkarian... atxabaltar ugari elkartzen gara bertan.

- Arrazoi berezirik badaukazu peregrinaziora joateko?

- Batzuk promesak egiten dituzte eta horregatik joaten dira. Nik ez daukat promesarik, urteroko ohitura da eta gustora eta gogo handiz ospatzen dudana gainera.

- Horrenbeste urtetan bitxikeriarik gertatuko zitzaizuen.

- Urte batzutan demaseko euriak egin izan dizkigu, ekaitz izugarriekin ibilita gaude. Beste behin Don Pedro hil zen urtean, hileta egin zen astelehen horretan eta larri ibili ginen hiletara heltzeko.

**Martín**  
RELOJERIA • BITXITEGIA

Bere bezeroen zerbitzura

Mitarte, 16  
Tfnoa: 943 79 01 72

INDUSTRIA  
HORNIKUNTZAK

**RKU**

Mitarte, 23 Aretxabaleta  
Tfnoa: 943 79 96 66  
Fax: 943 77 10 33

MAITE  
ileapaindegia

Sarasate, ☎ 943 79 59 05  
ARETXABALETA

Izozkiteki-Gozotegia  
**IZOZKITEGI**

Otalora, 11  
Tfnoa: 943 79 93 58  
ARETXABALETA





Bai, bukatu ziren bixamon egunak, Andra Mariren omenez herrian ospatzen ditugun jai egunak. Zeresanik ez aurtengoez gustu guztietarako aukerak eskaini dituztela, zezenzaleentzako zezenak, gaurik martxoso eta luzeenak gautxorientzat, ikuskizun ugari, gustu guztietarako musika...



Gainera zarataz ere inor ezingo da kexatu, tapoiak jartzea besterik ez zegoen eta.

Ondoren datozen argazkiak ikusteaz dena esanda dago. Agian jai batzordea zoriondu eta ondorengo jaiak ere hauek bezalako erakargarriak izan daitezten esatea besterik ez zaigu gelditzen.





Gazte hauek nagusien aurka bolotan lehiatzeko maila badutela erakutsi zuten!!! Baliteke datorren urterako desafio interesgarri batek irtetea.



Herrian sutea gertatuz gero lasai egon gaitezke, herriko umeak guztiz gertatuta daude honelako ekintzei aurre giteko eta.

## GAZTETXOEN TXANDA

Urtero moduan aurtengo Andramaixetan ere gaztetxoek paper garrantzitsua bete dute. Haurrek duten jai gogoia ikustea besterik ez dago.



Uff, uff! Andramaixetan zehar horenbeste salto eta dantza egin ostean, apurtxo bat deskantsatzea ere ez da txarto etortzen. Hirukote honek ondo baino hobeto aukeratu zuen bere eserlekua.



Eup, eup! Eutsi gogor! Sarri gogoak indarrak baino erantzun hobeak izaten ditu. Bat, bi... eup!



## ZEZENA ETA KIROLA BATERA

Aurtengo zezenak korrikalariak baino biziago ibili dira. Baina normala, gauean egon zen giroa ikusita.

Zezenzaleek txirrindulari eta pe-lotariekin batera kirol apur bat praktikatu beharra izan zuten.



Badirudi txikitoren bat hartzeko gogoz zebilela zezena.




Torero, torero... argazki hau Eibarrera bidali ezker...



Batzuk nekatuta jaio direla dirudi. Takarraran hasi aurretik deskantsatzen.



Pozik gelditu zen Amaia txirrindulariak emandako lorarekin. Ondo begiratuta... ez da gutxiagorako! Iker Zabaleta izan zen irabazlea eta Iban Sastrek mendiko etapa irabazi zuen.



Badago jaietan deskantsurik hartzen ez duenik ere. Behintzat frontoi berrian jokatzeko aukera izan zuten!



## GAUEAN DENOK MARTXARA!

Gauetan batzuk ohera eta beste batzuk kalera, dantzatzera, edatera, eta ahal duenak ligatzera. Baina garrantzitsuena ondo pasatzea.



Ondo girotuta zebilen koadrila hau Andramaixetako hirugarrenean.



A ze jende piloa elkartu zen taberna eta txosnetan. Nork esaten du Andramaixetan ez dela inor egoten?



Baten batzuk falta dira herrian. Horien alde ere manifestazio jendetsua egon zen.



Mexikar hauek euskaraz ere egiten zuten. Batera ala bestera jendea animatzea lortu zuten. Andele, andele!!!



Eta nortzuk dira bakero hauek? Banan banan zezen gainean ibiltzeko beldurrez ala?





**Jakina, antolatzaileak ezin falta herri bazkarian. Jaixetan lan eta lan ibili ondoren, goserik haundiena eurak izango zuten seguruenik. Platerra garbi gelditu al zen?**



**Ondo ebatu platerra! Bestela, arroza, laurel hostoak, untxi eta langostinoak saltoka irtengo dira eta.**

## TRIPA BETETZEKO ORDUA

Herriko jai nagusienetan ohikoa baino bazkari ederragoa jateko ohitura dago. Bestalde, herritarrak elkartu eta bazkaria elkarrekin egiteko bi aukera egon ziren. Bigarren egunean txosnetan eta plazan paelia hirugarrenean. Bixak izan ziren arrakastaz betetakoak, ikusi bestela.



**Plazako arkupeak jendez gainezka egon ziren. Antolatzaileak bildurto ziren danondako paelarik helduko ez zelakoan.**



**Horrelako muxuak jasota gustora lan egiten da.**



**Axu eta Kepari omenaldia egin zitzaizen txosnetako bazkarian. Ondoren Igor kantariaren ahotsak alaïtu zuen bazkalostea.**



## KALEKO ANIMAZIOA

Zer dira ba jaiak kaleko giro eta animazio barrik? Horrelako jai egunetan kaleak inoiz baino animatuago egoten dira eta zeresanik ez jendea ere girotuta.



Hau bai sorpresa hau. Azkenean ezkontzara iritsiko ete ziren? Guk geuk behintzat, ezkontzetan baino hobeto pasatu genuen!



Erraldoien konpartsak Bilboko kaleak utzita etorri ziren gurera. Itxura danez hemengo giroa gehiago gustatu zitzaien, alde egiteko gogorik ez zuten eta.



Eta jaietan banda ezin falta. Baina badirudi aurtengo hauek zirkunferentzia ondo egiteari ematen diotela garrantzia.



Hortxe izan genituen Ludi Berrikoak eguerdiko giroari txispak ateratzen.



Herriko gizon guztiak lelotuta kubatar hauen gorputzak ikusita. Emakumeak ere ez ziren atzera gelditu.



# TABERNA ETA JATETXEEN GIDA

## Arlutz taberna

TABERNA  
**ARLUTZ**  
MITARTE, 16 • ARETXABALETAKO • TFNOA: 943 79 32 34

*Gustoko musika*

Mitarte, 16 • ARETXABALETAKO  
Tfnoa: 943 79 32 34

## Kixkor taberna

**KIXKOR**  
taberna

Mitarte, 13 • ARETXABALETAKO  
☎ 943 79 20 60

## Amets taberna

**AMETS**

Taberna eta kafetegia  
Iparragirre, 4 • 943 79 01 29  
Aretxabaletako

## Josu harategia

- *Urdaitegia-Gozotegia*
- *kroasantegia*
- *Gertatutako janariak*

*Josu Harategia*

Mitarte, 1 • ARETXABALETAKO  
Tfnoa: 943 77 03 08

## Urbaltz taberna

**URBALTZ**  
TABERNA  
Mitarte, 21 behea  
Tfnoa.: 79 79 79  
ARETXABALETAKO

## Zaraia taberna

**MANTEKA  
ANAIK**

*Goizeko 5,30etatik  
zurre zerbitzura*

Araba Ibilbidea, 20 • 943 79 88 95

## Goyaran erretegia



**GOYARAN ERRETEGIA**

- ◆ Parrila espezialitatea

Solohaundi-8 ARETXABALETAKO  
☎ 943 79 68 57

## Taberna Berri



*Taberna Berri  
juletxea*  
Durana, 26 • ARETXABALETAKO  
☎ 943 79 20 67

## Mendiola erretegia

ESKORIATZA

Tfno 714345



- ◆ *Bazkari  
eta afariak*

*Asteleheneran  
itxita*

Mendiola auzoa • Eskoriatza

## Haizea taberna



Mitarte, z/g • ARETXABALETAKO  
Tfnoa: 943 79 85 57

## Ezkutu taberna



Mitarte, 9 • ☎ 943 79 92 01

## Bedarreta taberna

*Bedarreta*

*Beti bezeroen zerbitzura*

Otalora, 19 ◆ Tfnoa: 943 79 20 89

## Baster alde jatetxea



Sasoiko  
jakiak  
giro  
onenean

Galartza auzoa  
☎ 943 79 24 58  
ARETXABALETAKO

## Artano taberna

Herriko  
plazan  
**ARTANO**

*Girorik onena*

Herriko plaza, 3 • 943 79 62 75

## Dorleta taberna

*Dorleta*

*Bezeroen zerbitzura*

Loramendi 8 • ARETXABALETAKO  
☎ 943 79 94 15





## Hirugarren eguneko mozorroak

iru gutxikin baina zein ondo pasatzen genuen lehen, sarri entzun izan diegu gurasoei edo aiton-amonei... Andramaixak beti izan dira herriko jai nagusienak, azken urteotan jende asko kanpoan egoten den arren, gelditzen direnek giro bikaina jartzen dute, hirugarren egunean batez ere. Orain urte batzuk arte hirugarren egunean koadrilen desfilea antolatzen zen. Koadrila ugari izaten zen egun honetan mozorrotu eta jai giroari txispa ateratzen saiatzen zirenak.

Gaurko hau ere 1975.eko Andramaixetako irudia dugu. Argazkiko mutilak ijitano jantzi, asto, txakurra eta karroa hartu eta itxura zarpailenekin kalean gora eta behera ibili ziren benetazko ijitoen pare. Gainera benetako ijito erropak jantzi zituzten, izan ere, Jesus Lonbidek orduan Bainuetxen bizi ziren ijitoei eskatu zien jantziak, baita txakurra bera ere. Jesusek kontatu digunaren arabera, Bainuetxen bertan goizean-goizetik ekin zioten prestakuntzei, ondoren kalean gora eta behera Andramaixetako hirugarrenari benetako kolorea jarriz. Gurean bazkaldu eta gero arratsaldean zezenetan ibili ziren. Epamahaiak lehen saria eman zien gainera, ez da gutxiagorako, argazkia ikusita... Saria ondo ospatuko zutela ziur gaude.

Argazkikoak ezkerretik eskumara: **Julian Jausoro, Jesus Lonbide, Miguel Perez, Alberto Beltran de Heredia, Tomas Ribera, Imanol Galfarsoro, Pedro Bengoa, Mulas familia (atzeko gaztetxoak).**



Zenbaki

Basabe  
Industrialdea  
**Aretxabaleta**  
Tfnoak: 943 71 21 12  
943 71 22 68

**Aholkularitza**

**Etxabe**  
**harategia**

Durana 4  
☎ 943 79 16 61

Pelikularik hoberenak

**DON**  
**BIDEO**

Lezama Merkatal  
zentrua  
ARETXABALETA



## LANA

◆ **ARETXAGAZETA**n egun osoz lan egiteko pertsona bat behar da. Baloratuko da: euskara maila eta informatika erabiltze-mailan ezagutzea. Aretxabaleta eta bertako hizkuntza ezagutzea. Curriculum-ak irailaren 10a baino lehen Aretxagazetara (kultur etxea) ekarri beharko dira edo 151 Postakutxatilara bidali.

◆ **ARETXABALETAKO KOMUNIKABIDEAK-LORAMENDI** elkarteak egun erdiz telebistan lan egiteko pertsona bat kontratatu nahi du. Baloratuko da irudi eta soinu teknikan ikasketak edo esperientzia izatea eta euskara maila. Curriculum-ak irailaren 10a baino lehen Aretxagazetara ekarri (kultur etxea) edo 151 Postakutxatilara bidali.

◆ Jatetxerako zerbitzaria behar da, neska edo emakume euskalduna eta esperientziaduna. Tfnoa: 943 79 24 58.

◆ Joskina behar dugu kortinak eta edredoiak egiteko. Interesatuak deitu 943 79 27 27 (denda ordutegia).

◆ Pertsona bat behar da umea zaintzeko. Amaia-Berrira deitu (943 79 06 49) denda ordutegian. Gabez (943 79 28 74). Elena.

◆ **Langaiko lan eskaintza**

**Ekonomia irakaslea.** Ref.11467/2. Durango.

**Geografia eta historiako irakaslea.** Ref. 11469/2. Durango.



**Zure iragarkia honako txoko honetan jarri nahi baduzu, deitu 79 01 05 telefonora. Dohainik da.**

**Teknologia irakaslea.** Ref. 11206/1. Durango.

**Informatika teknikaria.** Ref. 11571/2. Arrasate ETT.

**Erljio irakaslea.** Ref. 11545/1. Gasteiz.

## DENETARIK

◆ Bi lagun behar dira Donostiako Amara auzoan pisu bat osatzeko. Pisia egoera onean dago. Harremanetarako deitu: 943 79 27 42/943 79 53 58.

◆ Lepoko orlegi bat galdu zen Portasolgo jaietan. Aurkitu duenak mesedez deitu, 943 79 01 05 telefono zenbakira.

◆ Urrezko pultsera galdu nuen Andramaixetan. Aurkitu duenak deitu 943 79 74 88 telefono zenbakira.

◆ Haizeak eramandako edredoi bat desagertu zen uztailean. Larrosa kolorekoa da eta lore txikiak ditu. Tfnoa: 943 79 04 76.

## ETXEBIZITZA

◆ Apartamentu bat salgai dago Donostiako Egia auzoan, Virgen Blanca kalean. Tfnoa: 943 43 11 00.

◆ Pisia alokatu nahi da Aretxabaletan. Tfnoa: 94 6253196.

◆ Pisu bat alokatzen da Aretxabaletan. Tfnoa: 943 79 40 19.

## LEHIAKETAK

◆ **Arientzako Andramaixetako IV. marrazki lehiaketa.** Arientza gaia harturik Arientzarra, senitartekoa edo laguna izan beharko da lehiaketa honetan parte hartzeko. Marrazkiak irailaren 11rako Jose Juakine-nera edo Felix ilemoztegia bidali behar dira.

◆ **Kaleko margo lehiaketa Deban.** Debako Udalak Aitzaiundi margolari taldearekin batera kapoko pintura lehiaketa antolatu du irailaren 6rako, igandea. Sariak honakoak izango dira: 1.a 90.000 pta. 2.a 75.000 pta. eta 3.a 50.000 pta.

◆ **Gabriel Aresti XVI. ipuin lehiaketa.** Gai libreko ipuin originalak izan beharko dira, gehienez DIN A-4 motako 15 orrikoak, euskaraz nahiz erdaraz. 500.000 ptako sari bana eta 200.000 ptako bina akzesit egongo dira. Ipuinak aurkezteko epea 1998ko urriaren 30a da.



Basabe Poligonoa A-15  
☎ 943 79 34 28  
**ARETXABALETA**

**CONSUM EROSKI**

BETI ZURE ZERBITZURA

Durana, 8  
Tfnoa: 943 77 17 06

Aralar z/g  
Tfnoa: 943 77 17 04

**ARETXABALETA**

**ITURGINTZA**

**J.J**

Tfnoa: 943 79 07 34  
943 79 31 87



# Jaixetako gorabeherak



*M. J. Aritzaga*

Oporrak bukatu dira, eta dagoeneko gehienok lanean hasiak gara. Batzuk urtarrileko krisia asko nabaritzen dela diote, baina lanerako buelta, ez al da gogorra lanerako buelta? Eskerrak gaurtik aurrera behintzat, egun gutxiago gelditzen direla berriz ere oporrak hartzeko.

Horrenbeste negar egin ostean, pixkat alaitzeko, aurtengo Andramaixen errepassoa egiteko ordua iritsi zait. Benetan ondo pasa nuen eta!

Batzuk dantzan eta kantuan ibili ziren bitartean, egon zen kirola egiteko, eta txapelketetan parte hartzeko tartetxo bat hartu zuenik ere. Musean adibidez 49 partaide egon ziren. Asko kanpotarrak izan arren, lehengo hiru postuak behintzat etxerako izan ziren. **Aitor Irure eta Jabier Aguirre** nagusitu ziren aurtengo mus txapelketan. **Mikel Etxabe eta Iker Iturrikastilo**, berriz, bigarrenak izan ziren. Hirugarren postua eskuratu zuen bikotea **Igor Etxabe eta Aitor Izarzugaza** izan zen. Udaletxearen kontu ondo ibili die aurtengo jaixetan.

Kartak alde batera utzi eta boloak hartuko ditut orain. Esateko modu bat besterik ez da, izan ere, boloa hartzen eta berarekin jolasten trebea **Julian Elorza** da eta. Berau izan da aurtengo bolo txapelketako irabazlea. Kontuz ibiltzea komeni zaio, hamasei urtetik beherako gazteak ere, bolotan indarturik dabilta eta. **Markel Mendieta, Alex Azkargorta, Josu Martinez, Sergio Uriarte, Martin Antxia** eta **Aitor Bolinaga** izan ziren lehenengo sei postuetan gelditutakoak.

Andramaixetan izan diren txapelketekin jarraituz, txirrindu karrera ezin ahaztu. Aurtengo sprint zoragarri batean bukatu zen eta eskuak bi txirrinduarik altza bazituzten ere, lora erramua eta kopa **Iker Zabaletak** jaso zuen **Amaia Berezibar**-engandik. Atxabaltarron pozerako, bestalde, **Iban Sastrek** garaipena lortu zuen mendiko etapan.

Txirrinduak bezala pelota partiduek espektazio itzela izan zuten jaietako bi egunetan. Frontoi margotu berria estreinatu zuten pelotariak. Eskerrak norbait denboraz aurretik konturatu zena "**Motz**" hitza hirugarrenean margotua zegoela laugarrenean beharrean. Baina jaietarako dena txukun eta ondo margotua zegoen, eskerrak!

Loramendikoek atera zuten kamiseta ere ondo margotua zegoen. "**Eraixozu minari**" zioen kamiseta erotikoa atera zuten oraingo honetan jaietarako. Betikotasunetik irteteko primerakoa.

Zoritxarrez mingainari gutxiago eragin eta esku eta burua martxan jartzeko ordua iritsi da: lanerako ordua.

ARGAZKI


*UrKiola*

Tfnoa: 943 79 39 20  
ARETXABALETA

**Jauregi**  
Okindegia

Otalora, 10  
Aretxabaleta

*Okindegia - Gozolegia*



*Aretxabaleta*

Loramendi, 6 - ☎ 943 77 17 19

Mitarte, 1 - ☎ 943 77 00 81

Aretxabaleta

Bertako okina

**M**obiliario  
**ARENAZA**

ALTZARIAK  
DISEINUA  
APAINKETA

Bizkaia, 1 - Tfnoa: 943 79 08:07  
ARETXABALETA

**GEMES**

- Depilazio definitiboa
- Makilaia
- Kutisaren garbiketa.

Durana, 40-2 ☎ 943 79 99 18  
Aretxabaleta

**Maritxu**  
Mertzeria

Araba Ibilbidea, 24  
Tfnoa: 943 79 23 53  
ARETXABALETA



**MAPFRE**  
Aseguroak

Errekararren, 3  
Tfnoa: 943 77 11 76



IRAILA

7

13

4, 5, 6, 7, 8

astelehena

domeka

**LEINTZ GATZAGAKO JAIAK**

Irailaren 4an gaueko 12etan rock kontzertua, **Betagarri eta Iskanbila** taldeekin.

Hurrengo egunean, hilaren 5ean, pelota partiduak arratsaldeko 6etan, besteak beste **bolo txapelketa** gaueko 11etan eta 11,30etan gaupasa **Alaitz eta Maider** eta **Urgabe** taldeekin. Musika amaitzean txokolatada izango da.

Domekan **txirrindulari lasterketa** goizeko 9,30etan. Eguerdiko 12etan meza eta ondoren **Gorriti eta bere abereak** eta arratsaldeko 5etan Azkona pailasoak eta **Mus txapelketa**. Gauean **Kaixo** taldearekin dantzaldia.

Asteartean mezak, txarangak eta haurrentzako parkeak osatuko du egitaraua.

**ARANTZAZURA PEREGRINAZIOA ARETXABALETATIK**

Batzuk oinez eta beste batzuk kotxez joango dira. 12etan meza nagusia Santutegian eta ondoren bazkaria.

11, 12, 13

**ANDRAMAIXAK ARIENTZAN**

Egitaraua hamabostean behinen.

**KURTZEBARRI EGUNA**

Goizeko 11,30etan meza tontorrean. Goian txanpana eta salda izango da Murruxoren eskutik.

19

zapatua

**MARRAZKI LEHIAKETA**

Eguzki alde elkarteak **25. urteurrena** betetzen duela eta 13 urtetik beherakoentzat **marrazki lehiaketa** antolatu du. Lehiaketa eguerdiko 12etan hasiko da Eguzkialde plazoletan.



*Kurtzebarri egunez txanpaina eta salda banatuko dira goian*



**LASAGABASTER-en**

**AUKERARIK ONENA**

Zerkaosteta, 1 eta 2 • ARRASATE TFNOAK.: 943 79 27 27 / 943 79 13 55

**GARBITU S. KOOP**

**Garbiketa orokorrak**

Errekabarren 3- Behea  
Tfnoa: 943 79 01 28

**BEREZIKI**

*Harategia  
Urdaitegia  
Fruitategia*

**IMANOL  
JANARI DENDA**

Gorbea kalea ☎ 943 79 05 83 ARETXABALETA

**ARBULO  
HARATEGIA**

Santa Kurtz, 5  
Tfnoa: 943 79 02 24  
ARETXABALETA



# KIROL ESKAINTZAK KIROLETXEAN

## MANTENTZE GIMNASIA

Mantentze gimnasia 16 urtetik gorakoentzat zuzenduta dago. Jarduerak astean 3 egunetan izango dira, goizez eta arratsaldez. Abonatuak 2.000 pta ordaindu beharko dute, gainontzekoek, berriz, 3.600 pta.

## 3. ADINEKO GIMNASIA

Klaseak astelehen, asteazken eta ostiraletan izango dira goizeko 10:15etatik 11:00etara. Dohainik da.

## ATZEGIKO GIMNASIA

Astearte eta ostegunetan izango dira, 17:45etatik 18:30etara, gutxitu psikikoei zuzendutako gimnasia klaseak. Honetan abonatuak 2000 pta ordaindu beharko dituzte eta gainontzekoek 3.100 pta.

## AEROBIK-A

Astean 3 egunetan izango da. 16 urtetik gorakoei zuzenduta dago.

## IGERIKETA

20 ordutako hastapen eta hobekuntza ikastaroak izango dira. Abonatuak 4.500 pta ordaindu beharko dute eta gainontzekoek 6.100 pta.

## AQUAGYM

Astean 4 egunetan izango da. Abonatuak 2.000 pta ordainduko dute, gainontzekoek, berriz, 3.100 pta.

## KARATE

Astean birritan emango da eta 6 urtetik gorakoei zuzenduta dago. Abonatuak 2.500 pta ordaindu beharko dute, eta gainontzekoek 3.500 pta.

## YOGAKO KLASEAK

Irailaren 15ean hasiko dira yogako klaseak. Astearte eta ostegunetan goizeko 10etan eta arratsaldeko 6,30etan ordu eta erdiko saioa emango da. Apuntatzeko Enkarna Mendezekin harremanetan jarri behar da 943 79 88 53 telefonoan.


**BEHARREZKO  
TELEFONOAK**

### Aretxabaleta

• Almen	943 71 49 07
• Aretxagazeta	943 79 01 05
• Basotxo	943 77 09 81
• Euskaltegia	943 79 21 68
• Gizarte-Laguntzailea	943 79 10 00
• Hezibide Elkarte	934 79 31 32
• Industrialdea	943 79 62 80
• Institutua	943 79 79 00
• Kiroletxea	943 79 64 61
• Kultur-Etxea	943 79 01 05
• Kurtzebarri Eskola	943 79 00 49
• Kurtzebarri B.H.I.	943 79 57 40
• Liburutegia	943 79 10 00
• Loramendi E.E.	943 77 09 70
• Ludoteka	943 79 05 81
• Murruxio M.E.	943 79 93 74
• Musika Eskola	943 79 36 50
• Ortzadar	943 79 01 84
• Osasun zentroa	943 79 74 58
• Otalora	943 79 79 99
• Parrokia (Bulegoa)	943 79 18 42
• Pausoka Haur-Esk.	943 77 03 77
• Postetxea	943 79 28 31
• Santa Rita Ikastetxea	943 79 17 00
• Taxi Geltokia	943 79 22 33
• Udal Bulegoak	943 79 10 00
• Udaltzaingoa	943 79 10 52
• Urats Gaiñ	943 79 99 11

### Udaltzaingoa

• Arrasate	943 79 14 39
• Bergara	943 77 91 06
• Eskoriatza	943 71 44 07
• Oñati	943 78 04 11

### Larrialdia

• SOS Deiak	088
• Eskualde-Ospitalea (Arrasate)	943 79 53 00
• Ertzaintza	943 79 71 99
• Gurutze-Gorria	943 76 55 76
• Larrialdia	943 77 10 43
• Suhiltzaileak (Oñati)	943 79 28 00

### Garraioak

• Pesa	902 10 12 10
• Renfe (Gasteiz)	945 23 20 20
• Renfe (Zumarraga)	943 72 15 15



## POSTAL LEHIAKETA

Oraindik ere postalik bidali ez duenak badu horretarako aukera baina azkar ibili beharko du. Jaso ditugun postal guztien artean zozketa egingo da eta garaile ateratzen denak bi lagunentzat afari eder bat irabaziko du Burgales jatetxean. Sari honen irabazlea irailaren 17ko alean aterako da. Postala Aretxagazeta 151 postakutxatilara 20550 Aretxabaleta helbidera bidali behar da.

*Burgales jatetxea*  
*Platerrik goxoenak giro atseginean*

Durana, 12 ☎ 943 79 20 63





Pasa den maiatzetik Lora- mendiko arduraduna da 22 urteko neska atxabaltar hau. Betidanik gustatu izan zaio euskara erabiltzea eta bere alde lan egitea. Esan bezala, aurrerantzean "Billy"ren postua beteko du. Beraz, laguntzarik behar ezkeru, Eneritzen- gana zuzendu, laguntzeko prest egongo da eta.

• Zein da zure lana Loramendin?

Hitz gutxitan esanda, Loramendi osatzen duten taldeak koordinatzea izango litzateke nere lana. Beti elkarteak dituen helburuekin lan eginez noski.

• Gatxa da eskua hartzea?

Gauza gehienetan bezala, hasieran

“Herrian %60ak ezagutzen du euskera, horietatik %46ak erabiltzen du.”

kosta egiten da. Billik dagoeneko ondo menperatzen zuen guztia, norekin egon, norengana zuzendu... nik ere poliki-poliki ikasiko dut. Eskertzekoa da gainera ematen didaten laguntza.

• Zenbat langile zaude?

Lau. Berbari hitzarmenean bi, ludotekan bat eta ni neu.

• Nork egin du atera duzuen kamisetaren marrazkia?

Mikel Arroiabek.

• Zer esan nahi du bere lemak?

Euskera erabiltzera animatzen da, modu probokatibo batean esanda. Arlutz eta Ezkutun daude salgai.

• Zer iruditu zaizkizu Andra- maixak?

Nik ederto pasa dut. Erakargarriena “La parranda mexicana” izan dela iruditzen zait.

• Jairik jai joanaz, antolatu du- zue ekintzarik San Miigeletarako?

Horretan gabiltz. Aurreko urteetan bezala, jai girotsuak antolatuko dira. Dantza, taloak, kontzertua...

• Baserritar jantziko zara?

Horixe baietz. Urtero jantzi izan naiz.

• Eta beste ekintzarik urterako?

Oraindik ez ditugu prestatu, baina ziu- r egongo direla.

• Nola ikusten duzu euskeraren egoera herrian?

Orokorrean gazteen artean erabiltzen da, baina oraindik askoz gehiago egin daiteke. Ezagutza %60a da, erabilpena, berriz, %46a.

• Eneritz, nola bultzatuko zenuke euskeraren erabilpena?

Euskeraz berba egiten ez duenari antolatzen diren ekintzetan parte hartzera gonbidatuko nioke. Ea bertako giroa ikusita euskera erabiltzeko go- goa sartzen zaion. Euskera eguneroko bizitzan sartu behar da.

• Herriko telebistaren inguruan zer daukazu esateko?

Oso ideia ona iruditzen zait. Poliki poliki aurrera aterako dena gainera.

• Telebista katai bat?

Ez dut ia telebistarik ikusten.

• Zein irratia?

Orain arte Egin irratia.

• Gaiz aldatuz, non egingo zenuke tatuaje bat?

Orkatilan.

• Janaririk gustokoena?

Nere amak egiten duena.

• Udan eskutiz asko jaso dituzu?

Espero nituenak baino gutxiago.

• Zuk idatzi dituzu?

Bai, asko gainera.

KOMIKIA




Mikel Arroiabek

Aretxagazeta



EZ DAGO EZER  
ZEHATZAGORIK  
AITAK BERE SEMEA BABESTEIA BAINO.



EZ DAGO EZER ZEHATZAGORIK  
RENAULT LAGUNA BATEK  
AITA BABESTEIA BAINO.



**Laguna 2**  
ZEHATZA DA



**RENAULT**

**MECA TAILERRAK S.A.**

Arrasaten 943 79 59 99 • Bergaran 943 76 40 68




# ETXE MOBEL

MUEBLES

ALZARIAK

**LOGELETAN  
maisua**

**Zapatu  
arratsaldeetan  
zabalik!!**



**Eta orain  
2. SOLAIRUA**

**Saloi eta sofa  
erakusketa**

Etxe Mobil, Deba Garai eta Behean zehar logela, sofa, saloi eta osagarriak errezago topatzeko merkatal zentrua. 48 urteko esperientzia.

Bertako profesionalek zuzendua. **BENETAN HARRIGARRIA!**

Araba Etorbidea, 5 (ESKATU Pabilioia, San Andres auzoa) Tel. / Faxe: 79 41 82

**ARRASATE**